

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, 2016ko lan-eskaintza publikotik eratorria

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak 33.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bitarteko funtzionarioak aurkezteko, publikotasun, berdintasun, merezimendu, eta gaitasun printzipioak hartu behar dira kontuan, eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatu behar da.

Aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudiaren aldaketa onartzen duen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.4 eta 4.6 artikuluek, uztailearen 18ko 3/2019 Foru Aginduak emandako idazketan (ALHAO, 88. zenbakia, 2019ko uztailearen 31koa), ezartzen dute behin 7 egun baliouduneko epea igarota pertsonak dagokion lan-poltsan kokatzeko behin-behineko ordenari buruzko erreklamazioak aurkezteko, ebatziko direla aurkeztutako erreklamazioak eta dagokion poltsaren hasierako osaera onartuko dela, indarrean noiz jarriko diren zehaztuta.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kudeaketako zuzendaritzaren 2020ko otsailaren 5eko ebazpenaren bidez, laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin betiko zerrenda onartu da, eta era berean, pertsona horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsa honetan kokatzeko behin-behineko ordena ere zehazten da.

Onorioz, eta aurretik ezarritakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko da (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn ere bai, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, aurkeztutako erreklamazioak ere ebatziz, hala badagokio.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikularekin bat etorriz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoa eratzen duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren 7. artikularekin bat etorriz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian argitaratzea (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, I. eranskin gisa erantsi dena.

Bigarrena. Halaber, maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren hamalagarren oinarrian xedatutakoaren arabera, ekainaren 1eko 111/2017 Foru Aginduak emandako idazketan (2017ko ekainaren 9ko ALHAO, 65. zenbakia), egun indarrean dagoen laneko medikuaren Zerrenda subsidiarioa automatikoki indargabetuko da.

Hirugarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko laneko medikuaren aldi baterako lan-poltsa hau indarrean jarriko da ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean,

berraztertzeko errekurtsua, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 4a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea

JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS

I. ERANSKINA						
LANEKO MEDIKUAREN ALDI BATERAKO LAN POLTSAREN HASIERAKO OSAERA						
NAN	H.E.	A ESKU.	B ESKU.	C ESKU.	LANALDI MOTA	PARTE-HARTZEKO LEHENTASUNA
16262148 K	0	X	X	X	A	
						36,26761
						1,5
						1,5
						39,2676
<p>H.E.:</p> <p>1 - 1. HE edo balliokidea</p> <p>2 - 2. HE edo balliokidea</p> <p>3 - 3. HE edo balliokidea</p> <p>4 - 4. HE edo balliokideae</p> <p>0 - Ez du egiaztatzen hizkuntza eskakizunik deialdi honetan</p>						
<p>PORTE-HARTZEKO LEHENTASUNA:</p> <p>A. eskualdea: Lautada</p> <p>B. eskualdea: Aiara</p> <p>C. eskualdea: Errioxa</p> <p>A. Lanaldi mota: Edozein lanaldi mota</p> <p>B. Lanaldi mota: Lanaldi osoaren ehuneko 75ekoa baino lanaldi laburragoak</p> <p>C. Lanaldi mota: Lanaldi osoaren ehuneko 50koa edo hori baino lanaldi laburragoak</p> <p>D. Lanaldi mota: Lanaldi osoa (ehuneko 100) baino ez</p>						